

HE2 (C1) - IDAZMENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

1. ADIERAZPEN-MAILA: TESTUAREN MAILA OROKORRA

Gai konplexuei buruz testu argiak eta ongi egituratuak idazten ditu, ideia nagusiak nabarmenduz, bere ikuspegiari eusteko ideia osagarriak eta adibide egokiak emanez, eta amaieran ondorio egokiak atereaz. Gai da iritziak eta baieztapenak zehatz mailakatzeko, ziurtasun/ziurtasun ezaren, uste/zalantzaren, probabilitatearen eta abarren arabera. Hizkuntza-errepertorio zabala dauka eta formulazio egokiak hautatzen ditu handik. Irakaslea den aldetik, hainbat testu-mota (argibideak, aktak, txostenak, eskutitzak...) eta bere ikasmaterialak zuzen eta argi erredaktatzeko gai izango da. Lexiko aberatsaren jabe da.

— **Hizkuntza-maila/ Kalitatea.** Zer-nolako maila du idazlanak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntza Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?

— **Ataza, testu-mota eta eraginkortasuna.** Atazari egoki heldu al dio? Testua egoki ireki, garatu eta itxi al du? Helburua lortzeko moduko testua eraiki al du?

— **Baliabide espresibo orokorrak.** Testu aberatsa al da hizkuntza-baliabideetan?

Konplexutasun sintaktikoa; perpaus mota ugari eta egokiak hautatu al ditu ala oinarritzkoegia murrizta da?

Lexikoa. Hitz altxor handia darabil ala hitz multzo txikia eta mugatua? Asko al dira esanahi zabalegiko berba zehaztugabeak, errepikapenak eta berba makuluak?

2. KOHERENTZIA /KOHESIOA: TESTUAREN ANTOLAMENDUA ETA ELABORAZIOA

Gai da diskurtsoa antolatzeko eta artikulatzeko mekanismo linguistikoak behar bezala erabiliz, diskurtso argia, ongi egituratua eta jarraipen onekoa sortzeko. Egitura, paragrafoen banaketa eta puntuazioa logikoak eta praktikoak dira.

KOHERENTZIA

— **Edukia.** Informazio nahikoa eta kalitatezkoa al darabil? Mezua ulertu ahal izateko behar diren datuak ematen ditu? Informazio larregi edo gutxiegi ematen du? Ideien jarraipena koherentea al da tesiarekin? Kontraesanik ba al dago enuntziatuen artean?

— **Egitura/ Paragrafoak.** Egoki banatu al ditu paragrafoak helburuari begira? Informazioaren ordenamendua logikoa da? Paragrafo bakoitzak ideia desberdin bat garatzen al du? Paragrafoak behar bezain landuak dira? Ideiak behar adina zehaztu eta garatzen al ditu ala asko dira zuritu gabeko baieztapen edo iritziak asko dira? Paragrafotik paragrafora eroso igarotzen al da? Erraz irakurtzen al da testua?

— **Egokitasuna/ Erregistroa.** Ba al dago gaiarentzat baldres edo arruntegi, teknikoegi edo konplexuegi gertatzen den adierazpenik? Idazlearen tonua familiarregia, zuzenegia edo urrunegia da jasotzailea zein den kontuan harturik?

KOHESIOA

— **Erreferentziarako mekanismoak (izenordainak, erakusleak, zenbait adberbio...).** Ba al dago errakuntzarik izenordainen eta erakusleen erabilera? Elementu bat berriz aipatzeko baliabide desberdinak erabiltzen ditu ala beti berbera?

— **Loturak.** Esaldien arteko kohesioa eraginkorra al da? Testu-zatien arteko erlazio logikoak (kausa-ondorioa, ordena, emendioa, aurkaritza...) adierazten dituzten lokailuak eta testu-antolatzaileak ondo erabilita daude?

3. ZUZENTASUNA: ZUZENTASUN FORMALA

Zuzentasun gramatikal handia du; akats gutxi eta ez dira ia nabaritzen. Egitura, paragrafoen banaketa eta puntuazioa logikoak eta praktikoak dira. Ortografia zuzena da, tarteka akats tipografikoak kenduta.

— **Morfosintaxia.** Akats larririk ba al du? Perpaus gehienak egoki formulatu al ditu ala baditu oraindik esamolde edo adierazpen gordinak, bestela adierazi beharrekoak? Hitzen ordena zuzena da ala ahizkuntzaren eragina nabari zaio oraindik?

— **Puntuazioa / ortografia.** Puntuazio-akats larririk (punturik eza, justifikaziorik gabeko komak subjektuaren ondoren, komarik gabeko aposizioak...) badago? Diskurtso unitateak egoki bereizten al ditu? Galdera eta harridura-zeinuak ondo erabiltzen ditu?

HE2 (C1) - MINTZAMENA EBALUATZEKO IRIZPIDEAK

1. ADIERAZPEN-MAILA

Malgutasunez eta eraginkortasunez mintzo da helburu sozial zein profesionalekin. Azalpen argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizten ditu gai konplexuei buruz eta antolaketa-egiturak, lokailuak eta beste kohesio-mekanismo batzuk modu egokian erabiltzen ditu. Gai da esan nahi duena argi esateko eta mugarik gabe adierazteko. Hizkuntza- errepertorio zabala dauka eta formulazio egokiak hautatzen ditu handik.

Eskola-gaiez nahiz kanpokoez azalpen argiak egiten ditu, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.

— **Hizkuntza-maila / Kalitatea.** Zer-nolako maila du ahozko produkzioak, oro har, eskatzen zaionarekiko? Aski da Hizkuntza Eskakizun horrek ziurtatu behar duenerako?

— **Baliabide espresibo orokorrak.** Hizkuntza-baliabideak (konplexutasun sintaktikoa, baliabide erretorikoak, orijinaltasuna, lexikoaren aberastasuna...) nahikoak al ditu maila honetako konplexutasunari erantzuteko? Esan nahi duena argi eta erraz esateko adina baliabide ba al du ala baliabide urriak ditu oraindik eta ezinean dabil ideiak zehaztu eta argitu ezinik edo erdizka adieraziz?

— **Koherentzia/ Egokitasuna.** Azalpenaren egitura eta ezaugarriak kontuan hartu al ditu? Testua egoki ireki, garatu eta itxi al du? Azalpen argia egin al du? Behar diren datuak era ordenatuan eskaini ditu, informazio larregi edo gutxiegi eman gabe? Ba al dago errepikapenik edo kontraesanik esandakoen artean?

Ideiak behar beste zehaztu eta garatu al ditu? Zuritu gabeko baieztapen edo iritziak asko dira?

Gaiarentzat arruntegi edo formalegi gertatzen diren adierazpenak erabiltzen ditu?

2. JARIOA / ERRITMOA

Jariotasunez eta bat-batean mintzo da, ahalegin handirik egin gabe; ez zaio antzematen esapide bila dabilenik. Gai zailtan bakarrik eten lezake diskurtsoaren berezko jariosuna. Gai da intonazioa adaltzeko eta enfasi berezia emateko.

— **Abiadura.** Bat-batean eta jario handiz mintzo al da? Irakasle-lanetan eroso aritzeko adinako jarioa eta erritmoa ba al ditu?

— **Erritmoa.** Erritmo uniforme – zalantza eta eten gutxikoa- al dauka ala zalantza eta erraztasun eza salatzen duten etenak egiten ditu oraindik? Isiluneak estaltzeko "eee...", "mmm..." bezalako betegarriak aspergarri gertatzen dira?

— **Berrantolaketak.** Neurritz kanpoko berrantolaketak egiten ditu oraindik?

3. ZUZENTASUNA

Zuzentasun gramatikal handia du: akats gutxi eta ez dira ia nabaritzen; gainera, egin orduko zuzentzen ditu.

— **Morfosintaxia.** Ongi menderatzen al ditu sintaxia, aditza eta deklinabidea? Oharkabean pasatzeko moduko akatsak al dira ala berehala nabaritzen direnak? Konturatu orduko zuzentzen al ditu?

— **Ahoskera / Doinua.** Fonemak ongi burutzen ditu? Erdal maileguetarako lege fonetikoak betetzen ditu? Hitzzen azentu eta esaldien intonazio egokiak ditu ?

4. ELKARRERAGINA

Gai da elkarrizketan erabateko parte hartzea izateko, eztabaidagai diren ideiak jariosunez eta laguntzarik gabe zabalduz eta garatuz, hizpideak konplexuak izanik ere.

Diskurtsoaren funtzioetan eskura duen sailetik esaldi egokiak hautatzen ditu bere oharrak egiteko, hitza hartzeko edo hitzari eusteko eta bere jarduera eta gainerako solaskideena trebetasunez uztartzeko. Esamolde idiomatikoen eta lagunartekoen ezagutza maila ere ona du eta ez zaio antzematen esamolde bila dabilenik.

Elkarreraginean eraginkortasunez parte hartzeko gai da, informazioa eta argudioak era logikoan aurkeztuz, bere ikuspuntu eta iritziak azalduz, arrazoituz eta defendatuz eta komunikazio-egoeraren aldaera desberdinei egokituz.

— **Elkarrizketa.** Eraginkortasunez parte hartu al du? Ideiak eta iritziak garatu eta modalizatu al ditu? Esamoldeak eta lagunarteko hizkera ondo erabiltzen ditu? Ideiak jarioz eta ñabardura guztiekin adierazten al ditu?